



FIBROMIALGIAREN ETANEKE

KRONIKOAREN

SINDROMEAREN

NAZIOARTEKO EGUNA 2018

Fibromialgiaren eta neke kronikoaren sindromearen nazioarteko eguna dela eta, berriro ere ozen aldarrikatu nahi ditugu gure eskubideak herritar gisa, Osasun Sistemaren desberdintasun eta gabeziak salatu nahi ditugu eta proposamenak egin nahi ditugu osasun-laguntza eta -estaldura hobetzeko, gure bizi-kalitatea eta gure familia hobetzeko ezinbestekoa baita.

Gure ahotsa Gaixoen Elkarteei esker bideratzen dugu; izan ere, urte osoan zehar, haiek gure kezkak eta arazoak biltzen dituzte, eta horri esker idatz dezakegu manifestu hau.

Eta, hain zuzen ere, manifestu honek islatu nahi du drama larria dela neke eta min kronikoak sortzen dituzten gaixotasunak pairatzea, eta are larriagoa dela gaixotasunok ikusezinak izatea, gizarteak ez baititu ulertzen edota ez baitzaizkio axola. Horrek estereotipo eta aurreiritziak sortzen ditu gure inguruan eta, beraz, alde batetik bigarren mailako gaixotzat hartzen gaituzte, eta bestetik, gaitzespena jasotzen dugu bai gizartean, bai lanean.

Hori horrela, azpimarratu egin behar dugu gure babesgabetasun egoera txikiagotu egin dela, erakundeek, profesionalek, gizarteak... konpromiso handiagoa hartu dutelako gure egoerarekin. Edonola ere, egin beharreko bidea luzea eta malkartsua da oraindik, nahiz eta gure ausardia hori baino indartsuagoa izan.

Hala, urte honetarako motxila prest daukagu gure premisa nagusiekin:

- * Minik handiena **ULERTEZINTASUNAK** ematen digu, bere horretan jarraitzen baitu. Hori dela eta, gizartearen arlo guztietan **ERRESPETUZ tratatuak izatea erreklamatzeko dugu**, hau da, ondo tratatzea herritar anonimoei, osasungintzako eta gizarteko profesionalei, enpresarietara eta sindikatuei,

ientzialariek eta ikerlariek, baita instituzio publikoek ere, horiek baitira gure eskubideak betetzeko berme nagusia.

- * Berrito ere esaten dugu gaixotasunek eta gaixoen ez dutela HERRITARTASUNIK eta, horregatik, ez dela alderik egon behar Autonomia Erkidegoen artean. Beraz, honako hau ezinbestekoa da:
 - Fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea duten gaixoen Osasun Sistema Publikoa **ERABILTZEKO** duten **AUKERA OSOA** bermatzea.
 - Autonomia Erkidego guztietan Sistemaren **BALDINTZAK BERDINAK** direla bermatzea, diagnosi, tratamendu eta prebentziorako protokolo bateratuen bidez; halaber, lan-munduan sartzeko neurriak ere berdinak direla bermatzea, baita elbarritasun, baliaezintasun eta gizarte-laguntzak esleitzeko irizpideak ere.
 - Gizarte- eta osasun-zerbitzuen aldetik gaixoen jasotzen duten arreta **KALITATEZKOA** dela bermatzea, beharrezkoak diren baliabide tekniko eta giza baliabideekin.
- * Gure osasun eta bizi-kalitatean **ERANTZUKIZUNA PARTEKATU** nahi dugula berresten dugu. Beraz, osasun eta giza politiken plangintzan parte hartu nahi dugu, baita aplikatzeko gida-planetan ere.
- * Min kronikoa pairatzen duten gaixo guztien artean eta horiek ordezkatzeko dituzten Elkarteek **SINERGIAK SORTZEKO** beharra azpimarratzen dugu, garrantzitsua baita **INDARRA METATZEKO** arazo amankomunen aurrean.
- * Aipatutako guztia betetzeko konpromisoa hartzen dugu, gaixoen elkarte eta federazioekin lan eginez eta **GIZA BOLUNTARIOTZAREN** bidez.

Laburbilduz, gogoia eta indarra elkartu nahi ditugu berrito ere erreklamatzeko Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Sindromea **NORMALIZATU** egin behar direla, **Codo con Codo** deritzen jardunaldietan **ELKARTEEK** eta **FEDERAZIOEK** onartu zituzten oinarritzko eta ezinbesteko **GUTXIENEO BERMEEN** arabera, eta **EPIFFAC ikerketan** ondorioztatutakoaren arabera.

Bestalde, **NAZIOARTEKO EGUN** honetan, gure ondoan borrokatu eta borrokatzen duten pertsona guztiak **omendu** nahi ditugu, lan handia egin baitute **NORMALIZAZIORA** bidean eta pertsona eta gaixo gisa dugun **DUINTASUNA** mantentzearen alde.

Eta pertsona, erakunde, sozietate zientifiko, profesionalen elkargo, administrazio eta erantzule politiko guztiei dei egiten diegu gure konplize izan daitezen, gure aldarrikapenekin bat egin dezaten eta **justizian eta berdintasunean oinarritutako gizartea** eraikitzeke erronka onar dezaten.

2018ko maiatzaren 12a